



DEIALDIA IZANGAIEN ZERRENDA OSATZEKO OPOSIZIO-LEHIAKETA BIDEZ, E MAILAKO GARBIKETAKO ENPLEGATU IZATEKO LANPOSTUA BETETZEKO, ALDI BATERAKO KONTRATAZIOAK EGIN AHAL IZATEKO HAREKIN, BERAKO UDALAREN UDAL BULEGOAK GARBITZEKO BEHARRAK BETETZEA XEDE.

OINARRIEN LABURPENA.

1. Arau orokorrak.

1.1. Helburua: izangaien zerrenda osatzea oposizio-lehiaketa bidez, E mailako garbiketako enplegatu izateko lanpostua betetzeko, aldi baterako kontratazioak egin ahal izateko harekin, Berako Udalaren udal bulegoak garbitzeko beharrak betetzea xede.

1.2. Probak eta lehiaketa: 8. eta 9. oinarrietan adierazitakoak.

1.3. Izangaiak deituak izan ahalko dira Berako Udalaren ordezkapen behar hauek betetzeko: mediku-bajak, oporrak, baimenak, eszedentziak edo antzekoak. Egingo diren kontratuak aldi baterako lan-kontratuak izango dira.

1.4. Lanaldia: Udalak jarriko du eta zerbitzuaren beharretara egokituko da.

1.5. Lansaria: lanpostuak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen E mailari dagozkion lansariak izanen ditu. Orobat eskuratuko dira plantilla organikoan ezarrita dauden osagarriak. 251/1993 Foru Dekretu Legegilea, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Birbildua onesten duena; Ordainsarien behin-behineko Erregelamendua, 1984ko uztailaren 4koa.

2. Izangaiak bete beharreko baldintzak (eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean):

- a) Espainiako herritarra izatea.
- b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gainditua ez izatea.
- c) Hauetako titulazio bat: Eskolatasun ziurtagiria, Lehen ikasketen ziurtagiria, Eskola-graduatuak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo baliokideak.
- d) Lanpostuaren eginkizunak betetzeko behar diren gaitasun fisikoak eta psikikoak izatea.
- e) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizia izan ez izana.
- f) Euskararen ezagutza: B1 edo baliokidea edota jakite-maila egiaztatzeko probak gainditzea. Eskarabideak egingo ditu proba horiek.
- g) Enplegu-eskatzaile gisa edo enplegua hobetzeko inskribatuta egotea enplegu bulego batean.

3. Prozedura: presazkoa, Enplegu Zerbitzuaren bitartez.

4. Eskabideak.

4.1. Eskabideak Berako Udaletxeko Erregistroan aurkeztu behar dira edota 39/2015 Legeko 16.4 artikulua jartzen dituen baliabideak erabilia.

4.2. Eskabideak deialdi honen I. eranskinean agertzen den ereduaren arabera izanen dira, eta haietan izangaiek adierazi behar dute betebeharrak guzti-guztiak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko epearen azken egunean.

4.3. Epea: Interesdunek eskabideak aurkeztu ahalko dituzte **2019ko urtarrilaren 11 arte**. Egun hortako ordu hauetan bukatuko da epea:

- Aurkezpen pertsonala Berako Udaletxeko Erregistroan: **13:30**.

- 39/2015 Legearen 16.4 artikuluko baliabideak erabiliz aurkeztuz gero: **23:59**.

4.4. Eskabidearekin batera dokumentazioa konpultsatua aurkeztu behar da: NAN, 2 c) eta f) oinarrietako tituluak, enplegu txartela eta merezimenduak.

4.5. Elbarritasunen bat duten izangaiek eskabidearekin batera egiaztatu beharko dute.

5. Behin-behineko zerrendak.

5.1. Alkateak onetsi eta Berako Udaletxeko Iragarki Oholean eta web orrian argitaratuko dira. Erreklamazioak aurkezteko epea: 5 egun natural.

5.2. Aldi berean, probak egiteko tokia eta data argitaratuko dira.

6. Behin betiko zerrendak: alkateak onetsi eta Berako Udaletxeko Iragarki Oholean eta web orrian argitaratuko dira.

7. Kalifikazio epaimahaia. Lehendakaria eta 3 mahaikidek osatuko dute. Idazkaria izendatuko da kideen artean.

8. Probak.

8.1. Euskara proba. Baztertzailerak izango dira eta Euskarabideak egingo diren B1 edo baliokidea aurkeztu ez duten hautagaiei.

8.2. Teorikoa. Gai zerrenda osoan dauden gaiak buruz (garkiketa, lan-arriskuen prebentzioa eta Berako udal eraikuntzei buruzko ezagutza), laborerentzako beharrezko galdera sorta bat erantzutea idatziz. Puntuazioa: 30 puntu gehienez. Gainditzeko, 15 puntu lortu behar da gutxienez.

8.3. Identifikazio agiria eraman behar da azterketetara.

8.4. Elbarritasuna adierazten dutenentzat egokitzapenak egingo dira, ahal den neurrian.

8.5. Ariketak plika itxien sistema erabiliz egingo dira eta haien irekiera publikoa izango da. Ondoren, puntuazioak iragarriko dira.



9. Merezimenduen balorazioa.

9.1. Merezimenduak baloratu ahal izateko jatorrizko agiriak edo agiri konpultsatuak atxiki behar zaizkio instantziari.

9.2. Lehiaketaren balorazioa 20 puntukoa izango da gehienez. Izangaien merezimenduak baloratuko dira, ondoko baremoari jarraikiz (lan esperientzia):

a) Esperientzia maila garbitzaile lanpostu batean, lan kontratuarekin. Toki administrazio batean baldin bada: hilabete bakoitza 0,20 puntu. Gehienez 12 puntu.

b) Esperientzia maila garbitzaile lanpostu batean, lan kontratuarekin. Beste administrazio batean baldin bada: hilabete bakoitza 0,10 puntu. Gehienez 8 puntu.

c) Esperientzia maila garbitzaile lanpostu batean, lan kontratuarekin. Enpresa pribatuan baldin bada: hilabete bakoitza 0,05 puntu. Gehienez 4 puntu.

d) Esperientzia maila garbitzaile lanpostu batean, autonomo gisa —zerbitzu kontratuarekin—, Administrazio batean baldin bada: hilabete bakoitza 0,10 puntu. Gehienez 8 puntu.

Lana egin bada osoa baino lanaldi laburragoetan, hainbanaketa eginen da dagokion heinean. Ez dira bi aldiz baloratuko baremoko talde berdinean eta aldi berean egindako zerbitzuak. Deialdiaren argitaratze-eguna arte egindako zerbitzuak izango dira baloratuko direnak.

10. Prozesua gainditzen dutenen zerrenda eta agirien aurkezpena.

10.1. Lehiaketaldia eta oposizioaldia bukatuak, kalifikazio epaimahaiak prozesua gainditu duten izangaien zerrenda argitara emanen du Berako Udaletxeko Iragarki Ohoan eta web orrian.

10.2. Berdinketa egonez gero, azterketa teorikoan lortutako puntuazioaren arabera erabakiko da. Hala ere, berdinketa mantenduz gero zozketa egingo da.

10.3. Epaimahaiak Alkatetzari bidaliko dio prozeduraren ostean osatutako zerrenda.

10.4. Zerrendan hurrenkera jartzeko kontuan hartuko da probetan lortutako kalifikazioa.

10.5. Hautapen prozedura honen bitartez osatutako zerrendaren iraupena 5 urtekoa izango da gehienez ere.

11. Zerrendaren kudeaketa. Deiak.

11.1. Deiak egiteko arau orokorrak.

11.1.1. Errazago aurkitu ahal izateko, izangaiak harremanetarako telefono bat bederen jakinarazi beharko dute. Horrez gainera, harremanetarako beste telefono batzuk edo helbide elektronikoko bat eman ditzakete. Informazio horrek etengabe eguneratua egon beharko du.

11.1.2. Izangaiei deitzeko orduan, 10.4 puntuan ezarritako lehentasun irizpideak hartuko dira kontuan.

11.1.3. Oro har, telefonoz kontratu bat eskaintzeko, gutxienez hiru saiakera eginen dira izangai bakoitzarekin, hark jakinarazitako bideak erabiliz, eta deiak egun bateko epean banatuz. Dei bakoitzaren oharra jasoko da, gorabeherak, eguna eta ordua aipaturik.

11.1.4. Izangai batekin harremanetan jarri eta kontratatzeko eskaintza eginez gero, erantzuten ez badu, uko egiten diola ondorioztatuko da eta 11.2 puntuan xedatutakoa aplikatuko zaio.

11.1.5. Izangai batekin harremanetan jartzerik ez bada, zerrendan hurrengo denari deituko zaio, harik eta eskaintzen diren lanpostu guztiak bete arte. Harremanetan jartzerik izan ez duten izangaiek zerrendan zuten postuari eutsiko diote.

11.1.6. Eskaintzari baietz esan nahi dion izangaia lanean berehala hastea onartu behar du.

11.1.7. Kontratu bat onartzen duten izangaiei ez zaie beste lanpostu batean aritzeko kontraturik eskainiko.

11.2. Kontratatzeko eskaintzari uko egitea.

11.2.1. Izangairen batek eskaini zaion lanpostuari uko egiten baldin badio, zerrendatik at geratuko da, salbu eta ondoko egoera batean dagoela frogatzen badu:

a) Indarrean dagoen izendapen, kontratu administratibo edo lan kontratu batengatik horretara behartua egotea.

b) Aldi baterako ezintasun egoeran izatea edo umea izan edo adoptatzeagatik lizentzia izatea. Arrazoi hori dela kausa kontratu bati uko egiten dioten izangaia ez dira berriz deitzeko moduan egonen, harik eta behar bezala frogatu arte uko egitea justifikatu zuen egoera bukatu dela.

c) 3 urte baino gutxiagoko semea edo alaba, norberak izandakoa zein adoptatua, zaindu beharrean egotea. Arrazoi hori dela kausa kontratu bati uko egiten dioten izangaia ez dira berriz deitzeko moduan egonen, harik eta kontratuari uko egin zioten egunetik gutxienez hilabete bat igaro arte, salbu eta hura eragin zuen arrazoia lehenago desagertzen bada.

d) Bigarren gradura arteko odol- edo ezkontza-ahaide bat, adina, istripua edo eritasuna dela-kausa bere burua ezin gobernatu duena, zaindu behar izatea. Arrazoi hori dela kausa kontratu bati uko egiten dioten izangaia ez dira berriz deitzeko moduan egonen, harik eta kontratuari uko egin zioten egunetik gutxienez hilabete bat igaro arte, salbu eta hura eragin zuen arrazoia lehenago desagertzen bada.

e) Izangaia ezkondu berria edo, Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Legearen arabera, parekatutako egoeran sartu berria izatea, eskainitako kontratuaren hasiera eguna bikotea eratu ondoko edo eratu aurreko hamabost egun naturaletan bada.

f) Desgaitasunen bat behar bezala onartua izatea eta desgaitasunaren ezaugarriak bateraezinak izatea eskaintzen zaion lanpostuaren ezaugarri bereziekin.

11.2.2. Aurreko idatz-zatian jasotako kasuetan, izangaiek zerbitzu emateko moduan daudela jakinarazi beharko dute. Jakinarazpen hori egin bitarte, izangaiek ez dira deitzeko moduan izanen, eta ez zaie inolako lanposturik eskainiko sartuta dauden zerrendetatik.

11.2.3. Puntu honetako 1. idatz-zatian adierazitako egoeretako batean dauden izangaiek aste bateko epea izanen dute, uko egiten dioten lanpostua eskaintzen zaien egunetik, agiri bidez eta behar bezala justifikatzeko. Hala eginez gero, lanpostuari uko egin ziotenean zerrendan zuten toki berean jarraituko dute.

11.3. Zerrendetatik baztertzea. Deia eragiten duen zerrendatik baztertuko dira ondoko egoera hauetako batean dauden izangaiek:

- a) Eskainitako lanpostuari arrazoirik gabe uko egitea.
- b) Dei egin eta lanpostua onartu ondotik, kontratua ez sinatzea, izangaiari egotzi beharreko arrazoiengatik.
- c) Probaldia ez gainditzea.
- d) Sinatutako kontratuari uko egitea.
- e) Sei hileko epean izangaiarekin harremanetan jartzea ezinezkoa izatea, hark emandako telefonoaren edo helbide elektronikoaren bidez kontratatzeo deiak behin eta berriz eginda ere.
- f) Berako Udalean eta haren erakunde autonomoetan funtzionario gisa edo lan kontratatu gisa sartzea lanpostu berean edo maila altuagoko beste batean jarduteko.
- g) Lanpostua bertan behera uztea.
- h) Kontratua amaitzea gerora sortutako arrazoiak direla kausa, hain zuzen, kontratatzen den langilea lanpostuan aritzeko gaitasun edo egokitzapen faltagatik, horrek lanpostuak dituen eginkizunak eraginkortasunez betetzea galarazten duen errendimendu eskasa badakar.

12. Datuen babesari buruzko informazioa.

Datuen tratamenduaren arduraduna

Identitatea: Berako Udala.

Helbidea: Herriko Etxeko plaza 1, 31780, Bera

Telefonoa: 948 630005

Posta elektronikoa: bera@berakoudala.net

Datuak babesteko ordezkaria: dpd@berakoudala.net

Helburua: Enplegu deialdiak kudeatu, botere publikoen erabileraren baitan.

Oinarri juridikoa: 251/1993 Foru Dekretu Legegilea, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Birbildua onesten duena.

Datuak mantentzeko denbora: Datuak gordeko dira aipatutako helburua lortzeko behar den denborean eta Udalak tratamenduari buruzko erantzikuzunak dituen

bitartean. Gainera, Artxibo eta dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legean araututakoa bete behar da.

Datuen hartzaileak: Datuak eman ahalko dira epaile eta auzitegiei, indarrean dagoen legedia konplutuz, eta argitaratuko dira udal web orrian eta iragarki oholetan, deialdian ageri den bezala.

Eskubideak: Sarbide, zuzentze eta baliogabetze eskubideak lehen aipaturiko helbidea erailiz. Gainera, erreklamazioa aurkezten ahal da Datuen Babeseko Espainako Agentziaren aurrean: Jorge Juan, 6, 28001 (Madril) edota www.agpd.es

13. Errekurtsoak. Deialdi honen eta bere oinarrien aurka eta, orobat, oinarriak aplikatzeko ematen diren egintzen aurka, errekurtso hauek paratzen ahal dira: gora jotzeko errekurtsoa, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa edota altxadako errekurtsoa. Kalifikazio epaimahaiak ematen dituen egintza eta ebazpenen kontra gora jotzeko errekurtsoa jartzen ahal da Berako alkatearen aurrean.

Bera, 2018ko abenduaren 20a.

Berako alkatea, Josu Iratzoki Agirre.

**ESKABIDE EREDUA**

Izena: ,
adinez nagusia, NAN zenbakia: , jaioteguna: ,
jaioterria: (.....), nazionalitatea:
....., egungo helbidea: (.....), kalea:
..... zenbakia: , posta kodea: , telefonoa:
....., helbide elektronikoa:
....., zure aurrean agertu eta
AZALTZEN DUT:

Deialdi honetan onartua izatea eskatzen dudala: deialdia izangaien zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketa bidez, E mailako garbiketako enplegatu izateko lanpostua betetzeko, aldi baterako kontratazioak egin ahal izateko harekin, Berako Udalaren udal bulegoak garbitzeko beharrak betetzea xede.

Lanpostuan aritzea galarazten didan eritasun edo urritasun fisiko edo psikikorik ez dudala.

Indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunetako bakar bat ere ez dudala.

Ez nautela ezein Administrazio Publikoren zerbitzutik bereizi disziplina espediente bidez, eta ez nagoela ezgaituta eginkizun publikoak betetzeko.

Deialdiaren 2. oinarrian eskatutako titulazioaren frogagiria aurkeztu dudala.

Ezarritako baldintza guztiak betetzen ditudala, eskabideak aurkezteko epearen azken egunerako.

- Euskara maila frogatzen dut. (*Adierazi X batez zein den*).
- Euskara proba egin behar dut. (*Adierazi X batez zein den*).

-Elbarritasuna dut eta, beraz, aipatzen dudan egokitzapena eskatzen dut, azaltzen ditudan arrazoiengatik. (*Beste orri batean zehaztuko dira minusbaliotasunaren arrazoiak eta eskatutako egokitzapenak*). (*Adierazi X batez hala bada*).

Agiri konpultsatuak atxikitzen ditudala lehiaketan baloratzeko.

Epaimahaiari baimena ematen diodala sakelako telefonoa erabiltzeko deiak egiteko.

HORRENBESTEZ:

Eskatzen dut eskabide hau onar dadila.

(Eguna eta sinadura)

BERAKO UDALEKO ALKATEA.